



"Baztango Udalak bertze urte batez hainbat ekitaldi antolatu ditu "Europako Hondakinen Prebentziorako astea"ren baitan

Europako hondakinen prebentziorako astea baliatuz eta hainbat kasutan bertak komertzioekin elkarlanean, Baztango Udalak hainbat sentsibilizazio ekintza antolatu ditu heldu diren egunetarako. Ekintza hauek jendartea hondakinen prebentzioaz ohartarazi, kontzientzia piztu eta gure eguneroko bizitzan praktikan jartzeko baliabideak eskeintzea dute helburu

Urtero bezala, akitzen ari garen urte arraro honetan ere eta behar bada inoiz baino indar handiagoz, Baztango Udalak hondakinen prebentzioaren inguruko hainbat ekintza burutuko ditu ondoko egunetan. Ekintza hauek **Europako Hondakinen prebentziorako astearen** baitan antolatzen dira eta aurtengoan aste hau **azaroren 21a eta 29a bitartean** ospatuko da. Mundu mailan ospatzen den aste honen harira eta erran bezala, gaiak gaur egun bizi dugun egoeraren aitzinean hartzen duen garrantzi berezia ikusirik, Udalak Baztandar guztiak ekintzetan parte hartzera, zabaltzen diren mezuen inguruko erreflexioa egitera eta gure eguneroko bizitzan ohitura jasangarriak aplikatzera animatu nahi ditu.

"Ibaitako bertze arrainak" erakusketa

Nafarroako Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoaren eskaintzari esker eta Bertan merkatari eta zerbitzuen elkarlearen laguntzaz egurrezko 15 panelez osaturiko erakusketa hau Baztanen izanen dugu ikusgai hilabete batez. Udaletxeko atean hasi eta bukatzen den istorio honek Baztango hainbat establezimentu zeharkatzen ditu hurbiltzen diren herritarrei gure gaur egungo kontsumo ereduak eta sortzen ditugun hondakinak ongi ez kudeatzeak sortzen ahal dituen eta gaur egun ia gure ibai eta itsasoetan sortzen dituen arazoetatik ohartarazteko intentzioz.

Erran bezala 15 panel ikusgarri osaturiko erakusketa honek gure ohiturak ez aldatzekotan, etorkizun ez oso urrunean gure ibai eta itsasoetako bizidun berriak nolakoak izanen diren erakusten digu.

Aste honetan zehar hondakinik gabeko erosketek saria izanen dute

Aste honetako bertze ekimen bat haragia eta arraina erosteko tuperren erabileraren sariketa izanen da. Aste honetan zehar erosketetan tuperra erabili eta beharrezkoak ez diren bildukiak saihesten dituztenek hondakinen prebentziorako opariak jasoko dituzte.



Elikagaiak garraiatzeko karrotxen banaketa

Kasu honetan ere Nafarroako Hondakinen prebentziorako bulegoaren aportazioari esker, eta hondakinen prebentziorako astea baliatuz, baliabide urriko familiei janaria garraiatzeko eta poltsa eta gainerako erabilera bakarreko bildukiak saihesteko asmoz elikagaien bankuko janariak garraiatu ahal izateko erosketako karrotzak banatuko zaizkie.

Traste haundien bilketa egokirako kanpaina

Traste haundien kudeaketa, Baztandik haratago doan arazoa izanik eta gaur egun bizi dugun osasun egoerak arazoa larriagotu duela ikusirik, kasu honetan Nafarroa osoan batera eginen dugu kanpaina bat da aurkeztu nahi duguna. Ondoko egunetan bertako komunikabideetan eta sare sozialetan zabalduko den kanpainaren bitartez, gainera kendu nahi ditugun traste haundiak dagokion telefonora deituz egitera bultzatu nahi ditugu herritarrak.

Plastikorik gabeko astea ikastetxeetan

Europako Hondakinen Prebentziorako Astea baliatuz baita ere, Baztango ikastetxeak aste honetan kontzientziazio ariketa berezi bat egitera animatu ditugu. Donostiako Cristina Enea Fundaziotik jasotako proposamen bat baliatu dugu bailarako ikastetxeak parte hartzera animatzeko, zenbaitzuk parte hartuko dutela adierazi dute.

2021ek Hondakinen Egutegiaren banaketa

Aurtengo Hondakinen Egutegia Baztango Udalak eta Malerreko Hondakinen Mankomunitateak Baztango eta Malerreko merkatarien elkarteekin (Bertan Baztan eta Denok Bat) elkarlanean egin dugu. Egutegiak ikastetxeen bitartez banatuko dira eta Udaletxean bertan eta Bertaneko komertzioetan ere eskuratzeko aukera izanen da aste honetatik aitzin.

Prebentzioa haur sortuberrietan

Gaur egun sortzen diren haurren etorkizuna gure eskuetan dagoela ikusirik eta haur hauekiko eta beren etorkizunarekiko gurasoek duten erantzunkizuna azpimarratu nahian, "hondakinen prebentzioa haur sortuberrietan" eskuorria prestatu du Baztango Udalak. Haur sortuberriak dituzten familiendako, bizitzako haserako fase honetan sortzen diren hondakinek beren etorkizuna nolabait baldintzatu dezaketela oroitaraziz eta bide horretan lagundu asmoz, Baztanen sortzen diren haurren gurasoei helaraziko zaie aurrerantzean eskuorria.



El Ayuntamiento de Baztan vuelve a organizar varias actividades dentro de la “Semana Europea de la Prevención de Residuos”

Aprovechando la “Semana Europea de la Prevención de Residuos” y en algunos casos en colaboración con los comercios locales, El Ayuntamiento de Baztan ha organizado diversas actividades de sensibilización. Estas acciones tienen como objetivo concienciar y animar a la sociedad a poner en práctica la prevención de los residuos.

Como todos los años y también este raro año que estamos agotando, con más fuerza que nunca si cabe, el Ayuntamiento de Baztan llevará a cabo una serie de actuaciones en materia de prevención de residuos que se irán desarrollando en los próximos días. Estas acciones se enmarcan dentro de la **Semana Europea de la Prevención de Residuos**, que este año **se celebrará entre los días 21 y 29 de noviembre**. Al hilo de esta semana que se celebra a nivel mundial y como ya se ha dicho, dada la especial importancia que el tema tiene en la actualidad, el Ayuntamiento anima a todas las personas de Baztan a participar en las actividades, a reflexionar sobre los mensajes que se difunden y a aplicar hábitos sostenibles en su vida diaria.

Exposición “Los otros peces de río”

Gracias a la propuesta de la “Oficina de Prevención de Residuos e Impulso de la Economía Circular de Navarra” y con la colaboración de la asociación de comerciantes y servicios “Bertan Baztan”, esta exposición, compuesta por 15 paneles de madera, estará visible durante un mes en nuestro valle. Los paneles cuentan una historia, que comienza y termina en la puerta del Ayuntamiento, atravesando varios establecimientos. El objetivo es concienciar a la ciudadanía sobre los problemas que puede ocasionar nuestro actual modelo de consumo y la incorrecta gestión de los residuos que generamos, problemas que actualmente ya estamos observando en nuestros ríos y mares.

Esta exposición, compuesta por 15 paneles espectaculares, nos muestra cómo serán, en un futuro no muy lejano, los nuevos seres vivos de nuestros ríos y mares.

Durante esta semana las compras sin residuos tendrán premio

Otra de las actividades de esta semana consistirá en premiar el uso de tupers para la compra de carne y pescado. Durante esta semana quienes utilicen el tuper en sus compras y eviten envoltorios innecesarios recibirán regalos relacionados con la prevención de residuos.

Reparto de carros de la compra para el transporte de alimentos

También en este caso, gracias a la aportación de la “Oficina de Prevención de Residuos e Impulso de la Economía Circular” de Navarra, y aprovechando la semana de la prevención de



residuos, se repartirán carritos de la compra a las familias con pocos recursos para el transporte de comida y el transporte de alimentos del banco de alimentos con el fin de evitar bolsas y otros envases de un solo uso.

Campaña de recogida de residuos voluminosos

La gestión de los residuos voluminosos es un problema que va más allá de nuestro Valle, es un problema generalizado que se ha visto agravado con la actual pandemia. En este caso presentamos una campaña conjunta para toda Navarra. Con la campaña, a la que se dará difusión los próximos días en los medios de comunicación locales y en las redes sociales, queremos animar a la ciudadanía a gestionar adecuadamente los residuos voluminosos, llamando al teléfono habilitado para su recogida domiciliaria y no perjudicando al resto de personas usuarias y servicios de recogida.

Semana sin plásticos en centros escolares

También aprovechando la Semana Europea de la Prevención de Residuos, hemos animado a los centros escolares de Baztan a realizar durante esta semana un ejercicio especial de concienciación. Hemos aprovechado una propuesta recibida por parte de la “Fundación Cristina Enea” de Donostia para animar a los centros escolares de la comarca a participar. Varios centros han confirmado su participación.

Reparto del Calendario de Residuos 2021

El Calendario de Residuos de este próximo año ha sido elaborado por el Ayuntamiento de Baztan y la Mancomunidad de Residuos de Malerreka en colaboración con las asociaciones de comerciantes del Baztan y Malerreka (Bertan Baztan y Denok Bat). Los calendarios se repartirán a través de los centros educativos y se podrán adquirir en el propio Ayuntamiento y en los comercios de Bertan a partir de esta semana.

Prevención en bebés recién nacidos

A la vista de que el futuro de los bebés de hoy en día está en nuestras manos, y de la responsabilidad que tenemos como madres y/o padres con respecto a éstos y su futuro, el Ayuntamiento de Baztan ha diseñado el folleto “prevención de residuos en bebés recién nacidos”. El folleto pretende ayudar a las familias con bebés recién nacidos recordándoles que los residuos generados en esta fase inicial de sus vidas pueden condicionar de alguna manera su futuro. El folleto se repartirá a las madres y padres de los bebés que nazcan en Baztan.

20 de noviembre de 2020

Para más información: hondakinak@baztan.eus o 667 808 539 (Miren)